

# Bizkaian ikerketa eta garapen teknologikoetarako zentroak eraikitzea

## Bizkaiko Foru Aldundia



Proiektu honek Bizkaiko Lurralde Historikoan ikerketa eta garapen teknologikorako zentroak eraikitzea planteatzen du eta, ondorioz, Automotive Intelligence Center (AIC) egin da. Zentro honetan automobilgintzaren sektorerako balioa sortzen da.

Automotive Intelligence Centerra (AIC) nazioartean egin den automobilgintzarako lehenengo inteligentzia-zentroa da. Merkatuko orientabidepean, proiektu honek modu inteligentean integratzen ditu ezagutza, teknologia eta industria-garapena. Ildo horri jarraiki, diziplina anitzen lana eta goi-mailako prestakuntza duten pertsonen koordinazioa bilatzen ditu.

Una manera de hacer Europa  
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



Eraiki eta abian jartzearekin hurrengo helburu nagusiak lortu nahi dira:

- Proiektu berriztatzaileak sortu eta erakartzea.
- Ikerketa zientifikoaren eta garapen teknologikoaren jarduerak garatzea.
- Edozein maila profesionaletan goi-mailako eduki teknologikoa duen prestakuntza bultzatzea.
- Automobilgintzaren sektorean ezagutza garatzea, ekonomiarako funtsezko sektorea baita eta Bizkaiko BPEaren ehuneko garrantzitsua baita.

AICk azpiegituren konplexua du Amorebietan eta Ermuan. Bi faseak amaitutakoan, guztira 26.700 m<sup>2</sup> ditu egoitza nagusian eta zenbait I+G+b unitatetan banatuta. 10.500 m<sup>2</sup> industria-garapenaren unitateetarako bideratuak daude.

Proiektu hau AIC fundazioaren bitartez garatzen da. Aipatutakoa Bizkaiko Foru Aldundiak, Amorebieta-Etxano eta Ermuko Udalek, automobilgintzaren sektorean abangoardian dagoen enpresa-multzoak eta ACICAE-Euskal Autonomia Erkidegoko Automobilgintzaren Klusterrak sustatzen dute.

Una manera de hacer Europa  
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

